



Eman hegoak euskarari



Joan-etorria Iparraldeko literaturan

Testu laginak dira beti, eta testu printzak askotan, irakurleari aho zapore gozoa utzi nahi lioketenak

JON KORTAZAR



Badira liburuak kanone-tik at geratzen direnak, baina, jakin-mina sortzen dutelako irakurleen irudimenean edo datu berezi eta gutxi ezagunetz beteta datorrelako, estimatuak direnak eta estimazio handitan gordetzen ditugunak. Haurtzaroko hainbat liburu ditut gogoan (etxe al-daketa anitzek utzi zituzten bazterretan), non agertzen ziren gauza jakingarriak eta bereziak, bitxikeriaz beteak, jakinaren gosez begiak erreta izaten genituen garaietan.

Xalbador bertsolariak kantatu zuen: «Gizonaren bizia zombaitek zer estimutan daukaten!». Bada horrelaxe nituen nik liburu haiek, ez nuke esan-

go bizitza beste, baina ia-ia...

Haurtzaroko liburu horiek bururatu zaizkit Xabier Monasteriok paratu duen 'Iparreko eleak. Ipar Euskal Herriko testu laginak' liburua eskura etorri zaidanean. Esan genezake Xabier Monasterioren pertsona bakarreko sozietatea dela. Berak aukeratzen ditu testuak, berak josi, apailatu, inprentara eramane eta, ahal denean, saldu. Eta pozgarria da ikustea liburuak bigarren argitalpena ezagutu duela oso denbora gutxiren buruan. Ez dakit irakurri, baina saldu behintzat egin du egileak.

Hiru ezaugarri ditu argitalpenak, eta zein baino zein argiago eta argigarriagoa. Lehena, Pou-

vreauk adieraziko luken gisa, «anbizionerik eta banaloriarik finena» erabili du Xabier Monasteriok: hutsetik hurrena egia esan, ia batere ez. Esan dugu, ez da liburu kanonikoa. Eta horretako asmorik ere ez du: apala dena apaltasunez erakusten du, dela kazeta zutabea, dela bertsoa edo ipuina, animalei buruzko agerpena edo almanakak. Denetarik bildu du, bakoitzari berea emanik: «Haietako [idazle klasikoetako] zenbaiten idazlanen bidez ahalik eta testu mota gehien erakustea» izan du helburu nagusi.

Uste dut aspaldi ari zela Inazio Mujika Iraola esan eta esan, gure klasikoan lan aszetiko eta

erlijiosoan artean bazirela bitxi narratibo esanguratsuak eta deigarriak, eta haiek behar zirela aipatu, babestu eta zaindu. Agertu zituen batzuk antologia berezietan. Juan Ignazio Iztuetarena, 'Ez direlako aketsak'; Juan Bautista Aguirrerena, 'Arpoi baten eran'; eta Iuan de Tartasena, 'Sugearen errautsa' liburuetan. Eta neure baitarako dut, eta hauxe da 'Iparraldeko eleak' liburua bigarren ezaugarria, Xabier Monasteriok haren gisa jokatu duela, lehorrean zen argia, gogorrean zen leuna, eta hitzen uholdean zen ederra gurera ekarriaz, eta dartzera emanez. «Testu laginak dira beti, eta testu printzak askotan, irakurleari aho zapore gozoa utzi nahi lioketenak. Nolabait esan idazlearen bisita txartelak dira, harengana nola heldu jakin dezagun» diosku argitaratzaileak bere bidea nondik nora doan erakutsiz.

Baina hirugarren ezaugarria da baliosena. Ugaritasun horretan benetako harribitxiak aurkituko dituzte irakurleak. Harrituta eta txundituta irakurri

ditut emakume bertsolarien kapituluak eta Le Dauphin itsasontzian aurkituriko gutun bilduma, eta haurrei eskoletan erakutsitakoa, zeren Xabier Monasteriok mantendu du testuei buruzko begirada bikoitza, estrabikoa akaso. Izen handiak (Axular, Oihenart, Elizanburu, Etxepare mirikua) hor dira, baina apalategian aurki ditzakegu era berean herri xehearen eria eta poza, jaia eta lantua. Eta horretan oso garbiak dira egileak jarri dituen ohar historikoak.

Esku artean dudan Japoniako literaturari buruzko liburu batek dio japoniarrek nahiago dutela, mendebaldekoek ez bezala, hara eta hona dabilen pentsakizuna. Lerro zuzenaren orde, maiteago dute puntu batetik bestera doan pentsakizun hegalaria, eta joan etorrian sortzen dute bere gogapenaren zorua. Uste dut Xabier Monasterioren liburuak pentsakizun mota hori erabili duela; puntu joan eta Iparraldeari buruzko ideia osoa (eta askotan berria) sortzen eta ikusten behartu gaitu.

Iraganeko ahotsak

PALOMA RODRÍGUEZ-MIÑAMBRES

Egileentzat liburuen izenburuak hautatzea afera pertsonala bada ere, irakurleok erakartzeko eta jakin-mina pizteko balio izaten dute. Poema sorta honetan deigarri begitantzen zaigu titulua; batetik, maiz errepikatzen den kontua dugu arkanbelea; bestetik, babestuta dagoen intsektu espeziea da, Europako herrialde askotan bere habitata galdu eta desagertzeko zorian dagoena. Titulu horrekin Mikel Tabernak bere bigarren poesia liburua aurkezten du eta lehenengo atalean ('Begiak galtzeko bel-durra') zenbait argibide ematen du liburu hau osatzen duten poemetan murgiltzeko.

Autoreak ondu dituen olerkiek lehenaldiaren oihartzuna ekartzen dute, hala nola, jaio aurretiko gerra zibileko aipamenak, idazlearen gurasoen zein idazlearen beraren haurtzaroko gomutak, gaztaro pasadizoak, adiskideak,

naturarekiko gozamenak eta atxikimendua. Jaio ginen geografiak nola markatzen dituen norberaren bizi-esperientziak azaltzen dira orrialdeetan, eta denboraren joate horretan identitatearen atalak berreskuratzen ditu poetak. Akta modukoa jaso nahi izan duela dirudi, igaro diren garaien lekukotasuna eskainiz, galtzear dauden tokien oroitzapenei baina, bereziki, joan diren pertsonen memoriari omenaldia egiteko. Mikel Tabernak bere buruari barre egiten dakiela erakusten duen arren, tonu elegiakoa eta samurra aukeratzen du poema gehienetan.

Beste ezaugarri interesgarri bat zera da: errimak musikalitatea sustatzen du obran zehar herrikoplen hurbiltasuna topatzen dugularik. Horrez gain, Nafarroako hizkeraren kutsuak bizitasunaz hornitzen ditu olerkiak eta poetaren mundua birsortzeko ahalmena du, ederki adieraziz nola iraganak bultzatzen gaituen haren bila joatera. Poetaren begiradan, orainak sortu duen distantziatik, dena dela, onarpena dago. Bizitzaren igaroaldiari so egiten dio nostalgiaz bai, baina ez dago malenkonia edo damu arrastorik.



ARKANBELE KANTAK
MIKEL TABERNA
Susa. 120 orr. 15 euro

LABUR LABUR

EHZ Festibalak talde gehiago iragarri ditu

EL CORREO

EHZ Festibalak uztailaren 2tik 4ra Irizarin zuzenean arituko diren talde gehiago jakinarazi ditu. Zea Mays, Rüdiger eta Physis vs Nomos, Entrexatak, Proleter, Tiktara, Rukula eta Fétiche taldeek ere girotuko dute jaialdia, orain arte iragarrita zeuden Chill Mafia, Ruper Ordorika, Potato, Kuartz eta Torheit taldeez gain.

Ekainaren 18ra arte, hiru eguneko sarrrerek 45 euro balio dute. Ondoren, berriaz, 55 euroko prezioa izango dute. Jaialdiaren webgunean eros daitezke. Antolatzaileek gaineratu dutenez, egun bakar-rerako sarrrerak aurrerago jarriko dituzte salgai.

Osasun neurriei egokitutako edizioa izango da aurtengoa seguru, eta antolatzaileak hainbat zehaztasun Suprefetura-rekin doitzen ari dira oraindik. Nolanahi den, aurreratu dute sartu nahi du-



EHZ Festibalaren aurkezpena.

tenek txertoa hartu izanaren ziurtagiria edo 48 ordu lehenagoko PCR negatiboa aurkeztu beharko dutela. Kontzertu eta bestelako ekimen guztiak zutik jarraitu ahalko dira, baina, hori bai, maskara jantzita.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Aitarene etxea

Karmele Jaio. Elkar

3 Taxiak ez dira inoiz gelditzen

Xabier Montoia. Susa

4 Ni eta gu. Pazpigarren uhina

Pako Aristi. Erein

EZ FIKZIOA

1 Arroz urez

Mikel Antza. Txalaparta

2 Aupa Pou. Bizitza sokaz lotuta

Eneko eta Iker Pou. Sua

3 Iñirrategi anaiak. Mendiari bihotz...

Ramon Olasagasti /Cesar Llaguno. Sua

4 Etxeko landareak

Jakoba Errekondo. Argia